

“Pentsamenduaren klasikoak” bilduma

Kulturaren transmisioa da giza ihardueraren alderdirik bikainenetako bat. Ezaguerak lortu eta banatzea, bertan partaide direnentzako harreman aberasgarri baten bitartez, oinarrizko tresna da Gizateriaren garapen eta gizartearen aurrerapenerako.

Bere lan, intelektualaren emaitzik bikainena testutan, historian zehar, ahalegindu diren gizon eta emakumeek beren gain hartu dute hastapen hori; testu horiek, gerora hedatzean, unibertsaldu egiten dute urte luzeen ondorioz lortutako jakintza hori giza elkartearen zerbitzutan jartzeko.

KLASIKOAK lukro-asmorik gabeko elkarteak da eta Pentsamendu Unibertsaleko obrarik behinenak euskaratzeko helburuarekin sortua. Egiteko hori burutzerakoan sinetsirik dago gure kultura ekarpen unibertsalaz aberasteak bitarteko bat eskuratuko diola Euskal Herriari bere garapen integralerako. Ideien historian esanahi garrantzitsua lortu duten pentsamenduzko kontzeptuak nork bere hizkuntzan izatea ezinbesteko oinarria da gero bakoitzak bere pentsamendu intelektual berarizkoa garatzeko. Bestalde, egin beharko den hizkuntz normal-kuntzarako ahalegin handiak ere nabarmen aberastuko du euskara. Tamaina honetako obrak osagai desberdinak bateratzea eskatzen du: ardura intelektualak, euskara eta euskal kultura bultzatzeko gogoak, talde tekniko trebatua eta ahalmen finantzarioa.

KLASIKOAK erakundea baldintza hauekin eraturik dago eta bere iharduerak Pentsamendu Unibertsaleko ehun obra garrantzitsuenak euskaraz argitaratzea dauka jarrira helburu zehatz gisa, “Pentsamenduaren Klasikoak” bilduma jasorik. Horretarako, BBV Fundazioa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Caja Vital Kutxa, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatearen ekarpenekin elkarre bat eratzen du. Aipaturiko elkarteak eratu duten kideen nahia izan da maila guztietan kalitatearik hoberena lortzea azalez eta mamiz,

eta horren begirale izan dadin Komite Zientifikoa bat hautatu zen honako jaunez osatua:

Altuna, Jesús; Azurmendi, Joxe; Garcia Gual, Carlos; Garmendia, Frantzisko; Manterola, Ander; Oyarzabal, Iñaki; Sarasola, Ibon; Uribarren, Frantzisko; Valverde, José María; Villanueva, Francisco Darío; Atxaga, Bernardo, Bildumaren zuzendari den Xabier Mendigurenen gidaritzapean.

Berauek hautatu dituzte Bildumako tituluak eta zehaztu argitapen- irizpide orokorrak. Halaber, itzulpen-lanetan esperientzia frogatua duten eta autore horien obretan adituak direnen talde bat bildu da zeregin hori jatorrizko hizkuntzetatik burutu ahal izateko.

Obra bakoitzak itzultzaile eta berrikuslea ditu eta beraiei dagokiez, esan behar da azken hamarkadotan lan nabariak egin eta trebetasun frogatua erakutsi dutela gehienek eta, aldez edo moldez, itzulzera doan autorea edo gaiaren ezaguera onaren jabe direla.

Bestalde, liburuak hitzaurre interesgarriz horniturik kaleratuko dira: batzuetan berariaz nazioarteko adituren bati eskatuko zaio, beste batzuetan estatuko edo Euskal Herriko irakasleren bati eta zenbaitean liburu horrek berorrek beste hizkuntzaren batean izan duen hitzaurre gogoangarriaren bat zuzenean euskaratuko da.

Joan den urtearen azkenetan elkarteak abiarazi zenetik honako hamabi hilabeteetan urrats garrantzitsu ugari eman dira: argitaratzeko obren hautapena egin da Komite Zientifikoaren eta Unibertsitateko Fakultate desberdin laguntzarekin; halaber, irizpide editorialak araztu eta obren hedatze —eta merkaturatze— plangintza zehaztu da.

Montaigneren “Entseiuak-I” obrarekin kaleratu den bilduma jadanik beste hiru titulu ere argitara eman ditu: T. Mororen Utopia, Nietzscheren “Honela mintzatu zen Zaratustra” eta Camusen “Sisyforen mitoa”.

1993, gauden urte honetarako beste autore eta obra hauek iragartzen dira:

<i>Giza ezagutzaren printzipioei...</i>	(Berkeley)
<i>Politeia</i>	(Platon)
<i>Askatasunaren Beldurra</i>	(Fromm)
<i>Indioez</i>	(Vitoria)
<i>Hizkuntza</i>	(Bloomfield)
<i>Nahimena naturan</i> (Schopenhauer)
<i>Entseiuak-II</i>	(Montaigne)
<i>Ateismoa Kristautasunean</i>	(Bloch)
<i>Eromenaren laudorioa</i>	(E. Rotterdam)
<i>Gizarte-kontratua</i>	(Rousseau)

Jadanik lehen tituluetan errainutzen den bildumaren aniztasunaz, esan behar da kontu handiz orekatu direla gaiak, hizkuntz jatorriak, garaiak, honelako bilduma batean posible den heinean ahalik eta irakurlego zabalaren zaletasuna zapuztu gabe.

Honela, bada, hasi antzinako Greziatik (Herodoto, Platon) eta aurre garakideetaraino (Popper) hedatzen da klasikotasuna, erromatar, Erdi Aroko kristauak eta aro modernoaren ekarpen nagusienak kontutan harturik. Gainera, etorkizunean baliteke Ekialdeko filosofia eta pentsamenduaren ekarpen nagusienetakoren bat edo beste bilduman agertzea, horrela bildumaren orokortasunak izan lezakeen mendebal-zentrismoa zertxobait orekatu geratuko litzatekeelarik.

Hizkuntzei dagokienez, beraz, greko, latin, frantses, ingeles, alemaniera, italiara, gaztelania, daniera eta abarretik euskaraturiko obrak izango dira.

Eta gaiei bagagozkie, berriz, zentzu zabalanean harturiko filosofia nagusi bada ere, ekonomia, psikologia, antropologia, historia, geologia, biologia eta abar bezelako gaiak ere kontuan hartzen dira.

Itzulpen-irizpideez denaz bezainbatean, esan beharra dago, bildumak jatorrizko testuak osorik eta fideltasunez eman nahi dituela, baina euskaratzaile bakoitzaren hurbilpen hermeneutikoa bortxatu gabe. Zentzu honetan, bildumaren zuzendaritzak itzulpen "orekatuak" nahi ditu semantika, estilistika eta pragmatikari dagokienean, itzultzaile bakoitzaren jitea errespetatuz.

Euskaltzaindiaren arauak errespetaturik, euskalkien aldetik ekarpen egiteko uzten den aukera eta itzultzeko orduan euskaratzaile bakoitzak eskain lezakeen ikuspegi traduktologiko berezia aberasgarri gerta litezke eta une honetan gure hizkuntz eta itzulpen koordinadak finkatzen lagunduko du.

Gaiak, jatorrizko hizkuntzak, euskaratzaileen euskalkia eta adina eta abar bezalako faktore eta aldagaiek, atzeraelikaduraren bitartez, zenbait urteren epean, euskal prosa aberastu eta finkatu ez ezik, itzulpen-gintzari ere sen eta oreka berri bat emango diotelakoan gaude. Azken hitza, beste alor batzuetan bezala, irakurleak du: egunero edo sarri testu horiek erabili, komentatu, laburbildu eta abar egingo dituen irakasleak eta ikasleak, komunikabideetako profesionalak, idazleak eta gustoz eta bere kultura janzte-aldera ahogozatuz xortaka irakurriko dituen edozein irakurleak. Obra horiek hautatu, euskaratu eta plazaratzen aurkitu duten adinako ilusioz irakurleak abegia egitea espero

du KLASIKOAK eta beronekin batera itzultzaileak, berrikusleak, hitzaurregileak eta proiektuan zehar hartu duten guztiak.

KLASIKOAK elkarteak euskara eta euskal kulturaren aldeko aha-
legin hau aurrerapauso nagusi bat izan dadin nahi du euskaraz lan in-
tektuala burutzen ari diren guztientzat eta, oro har, euskal gizartea-
rentzat.

Andoni Iriondo